



Tfnoa.: (+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberrri

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Zuzendaritza batzorde berria

Gure elkartearen historia laburrean lehenengo aldiz gertatu da lehendakari aldaketa. Orain artean kargu hau bete duen Patxi Arrasatek lekukoa eman dio Pello Iturria kideari eta elkartearen sorreraz geroztik zuzendaritza batzordean izan ondoren, Pello da elkartearen lehendakari berria.

Lehendakariaren gain, zuzendaritza batzordean zenbait aldaketa izan dira eta honela, taldea honako kideek osatzen dute: Tere Omaetxeberria (Gernika) lehendakari-ordea, Bea Gaston (Donostia) idazkaria, Marije Atorrasagasti (Ordizia) diruzaina, Unai Berasategi (Orio), M^a Eugenia Sagardo (Etxalar) eta Juan Carlos Aristorena (Arrasate). Orain arte gertatu izan den moduan, lurralde ezberdinetako ordezkariak osatzen dute batzordea eta batzuk berriak badira ere, beste batzuk aurreko taldearen jarraipena ordezkatzeko. Zuzendaritza batzorde berriaren lehenengo erabakietariko bat FARMABERRI bultzatzea izan da, kideen arteko harremanak sendotzeko baliagarri izan dadin eta elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko tresna egoki bat izan dezagun. FARMABERRI lau hilean behin argitaratzeko asmoarekin, zuzendaritza batzordeak ohiko hiru bilerak egingo ditu urtean Union Farmaceutica Guipuzcoanak Donostiako Igarra auzoan duen egoitzan.

Elkarte guztietan gertatzen den bezala, berrikuntza honekin bultzada berri bat eman beharko litzaiok FEUSEri eta orain arte martxan ditugun proiektuak bultzatzeaz gain, datozen urteetan egitasmo berriak sortuko direla espero daiteke.

Irudi berria

Zenbaki honekin garai berri bat hasten da Farmaberrirrentzat. Orain arte geure baliabideak erabiliz egiten genuena, aurrerantzean modu profesionalago batean egingo dugu eta oraindik ere nahikoa xumea izaten jarraituko badu ere, bistan da bere itxura guztiz berria izango dela.

Jakina da aldizkari baten balioa itxurarekin baino, bere edukinarekin lotua dagoela. Horregatik, espero dugu edukinaren alorrean ere aldaketak nabarmenak izango direla orain hasten den garai berri honetan, kide ezberdinen lanak argitaratuz eta elkartearen bizitzarekin lotura duten berriak zabalduz. Horregatik, guztiok gonbidatzen zaituztegu idazlanak bidaltzera. Dударik gabe, guztia baliagarri izango da elkarte-kideen arteko harremanak estutzeko eta elkarte bera sendotzeko.



Bakarrik 100 U.I./ml.ko intsulina bialak

Europako herrialde gehienekin berdintzeko, otsailaren 28tik aurrera ez da 40 U.I./ml.ko bialik izanen

Jakina da, geroz eta mundu zabala-go eta irekiago batean bizi garela, jendearen joan-etorriak eguneroko gauza bihurtu direlarik. Askotan gertatzen da beraz, atzerrian intsulina erabili beharra.

Espainiar estatuan, kontzentrazio baliokiderik ez egoteak, dosifikazio mailan akats larriak ekar ditzake. Arrisku honen aurrean OME-k (Osasunerako Mundu Erakundeak) eta IFD-k (Diabetisaren Nazioarteko Federazioak), 40 U.I./ml.ko (Unitate internazionala) bialak 100 U.I./ml. bialetan harmonizatzea gomendatzen du Europako herri gehienetan, bai eta Europatik kanpo ere, bialak 100 U.I./ml. kontzentrazioak baitira dagoeneko.

Beste herrialde batzuetako espe-

rientzia ikusiz, eta inplikaturik dauden talde sozialekin kontsultatu ondoren, osasun eta kontsumo ministroaritzak askoz ere hobea dela aldaketa egiterakoan, bi kontzentrazioetako bialak batera ez egotea erabaki du, horrek nahasketak ekar ditzakela eta. Hau da, egun bat finkatu (2001eko otsailaren 28a) eta egun horretatik aurrera botikan 100 U.I./ml.ko bialak soilik egongo dira, bai eta horiei dagozkien xiringak ere. Kontsumitzaileak egun horretan bialak eta xiringak aldatu beharko ditu, eta nahasketak arriskurik egon ez da-



din, garrantzitsua da gaixoak etxean ez 40 U.I./ml.ko bialik eta ez xiringarik edukitzea.

Intsulina berriak kontzentrazio altuagoa duenez, txertatu beharreko bolumena txikiagoa da, bialak gehiago irauten duelarik. Hau, medikuek kontuan izan beharko dute errezeta egiterakoan. Bestela, mota,

marka, dosia eta administratze sarritasuna ez dira aldatzen.

Luma-erako intsulinak ez dute aldaketa beharrik, lehendik ere 100 U.I./ml. baitituzte.

Bupropion

Nikotinaren menpekotasuna gainditzeko bide berria

Tabakoaren menpekotasuna gaixotasun kronikotzat har daiteke. Bere tratamenduan bi alderdi hartu beharko dira kontuan: Batetik, menpekotasun fisikoari aurre egiteko tratamendu farmakologikora jo beharko da, eta bestetik, laguntza psikologikoa beharko da menpekotasun psikikoa gainditzeko. Orain arte, arlo honetan, nikotinaren ordezkatzeko terapia erabili da soilik: Partxeak (azalean barna) edo eta txikleak.

Gau egun, medikamendu ez-nikotiko bat merkaturatu da: Bupropion (Anfebutamona).

Zer da Bupropion?

1985. urtean FDA-k onartu zuenetik 1997ra bitartean, depresioaren aurkako terapian erabili da, beraz, tabakoa uzteko terapia moduan eraginkorra den antidepresiboa da Bupropion.

Nola eragiten du?

Neuronetan, dopamina, serotonina eta noradrenalina berreskuratzea era-

gozten edo inibitzen du (inibitzaile ahula da). Nahiz eta zehazki ez dakigun zein den bide biokimikoa, pentsa daiteke dopamina eta noradrenalinen kontzentrazio handiagotze hau dela tabakoa uzteko prozeduraren erraztea eragiten duena.

Nola hartu behar da?

Erretzeari uzteko eguna finkatu behar da, eta tratamendua egun hori baino zazpi edo hamar egun lehenago hasiko da. Lehenengo hiru egunetan 150mgr./eguneko hartzea gomendatzen da. Laugarren egunetik aurrera 150mgr.ko bi hartaldi egingo dira egunean, gutxienez zortzi orduko aldea egon behar du hartaldi batetik bestera. Ez da gomen-

dagarria egunean 300mgr-tik gora hartzea, ez eta hartaldi bakoitzean 150mgr. baino gehiago hartzea ere. Giltzurruneko eritasunik izango balaitez, ez lirateke 150mgr. baino gehiago hartu behar egunean.

Zein arazo sor ditzake?

Konbultsioak sor ditzake, beraz beziki kontuz eman behar zaie epileptogeno izan daitekeen medikamenduren bat hartzen dutenei edo eta bupropionaren metabolismoak geldoagotzen duten botikak hartzen dituztenei. Anorexia edo bulimia duten edo pasatu izan dutenen artean ere ez litzake gomendagarria bupropion.

Zein izan da arrakasta?

Jarrera egokiz erretzeari uzten saiatu direnen %23-30 tratamendua amaitu eta handik urtebetera, erre gabe jarraitzen zutela ikusi da.



Farmazia sarean

Joan den azaroaren 14an Amaia Saez Osteriz lankideak hitzaldi interesgarria eman zuen euskaraz Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialeko aretoan.

Farmazia Interneten?

Farmaziak dagoeneko aurkitu egin du bere lekua Interneten munduan, on-line egiten diren medikamenduen lehen gaien salerosketak zein informazio zientifikoa ematen duten lekuetatik osasun-produktu eta zerbitzu trukaketarako dauden merkatu bertikaletaraino.

Zein arlotan?

Internetek farmaziarekin erlazioaturik dauden hiru motako mugimenduei sarrera eman die- Lehen medikamendua bere osotasunean lantzen duen mugimendua da. Bigarrena, medikamendua eta gaixoen arteko komunikazio bideak sortzen dituena eta hirugarrena medikamendu-enpresen arteko salerosketei sarrera ematen diena.

Helbideren bat?

Atari zientifikoetan medikamendu zein osasunarekin erlazioaturik dauden gauza guztiak aztertzen dira. Lehen atalean bi dauzkagu hurbil eta interesgarriak:

www.portalfarma.com

www.eudra.org

Bigarrenak, biztanleriarentzat bideratuak dauden atariak dira, batez ere, bere osasunaren arduradunak sentitzen direnentzat. Hauen artean oso ezaguna dugun helbidea agertzen zaigu:

www.saludalia.com

Enpresa kimikofarmazeutikoen arteko harremanak egiten al dira Interneten bidez?



Amaia Saez Osteriz

Adibide bat jarriko dizut. Joan den apirilean Bayer-ek eskatu zituen 700 tonelada anhidrido maleiko. Gai petrokimikoen salerosketetan diharduen on-line merkaturik handiena den ChemConnect-en bitartez zazpi erantzun jaso zituen bata bestea baino askoz hobea. Interneten leku hauei imarketplacei deritze eta merkatu honi B2B (business-to-business). Sarean atari interesgarriak aurkitzen ditugu: www.chematch.com www.chemdex.com goian aipaturiko www.chemconnect.com eta abar. Salerosketak egiteko modu honek ez du atzera egiteko aukerarik ematen.

Internetek zer eskaintzen die gaixoei?

Gaixok ere badute haien lekua Interneten B2B (business-to-consumer) sanitarioen bitartez. Enpresa farmazeutikoei sortu egin dituzte portalak, alde batetik beren irudi publikoa indartzeko, bestetik gaixotasun kroni-

koak dituzten gaixoei informazioa emateko. Honelako portalak Estatu Batuetan erraz lortu dute arrakasta baina Europar on-line farmaziek ez dute arrakastarik izan. Hala ere, Grendfield-ek on-lineari buruz egindako inkesta baten ondoren dio erabiltzaileek on-line farmazia onartuko luketela baldin eta bertan mediku eta farmazilarien aholkuak jasoko baltuzte. Honek esan nahi du on-line farmaziek arrakasta izan dezaten beharrezko izango dela osasun-langileen presentzia bertan.

Nola da Interneten etorkizuna gure artean?

Datorren hilabeteak oso garrantzitsuak izango dira Europa merkatu honetan Estatu Batuen atzetik gera ez dadin. Hala ere, merkatu honek Europar garatzeko oztopo handiak aurkitu ditu.

Etorkizunari begira Internetek farmaziari eskainiko dizkion proposamen guztiak gaixoa, profesional sanitarioak zein legeria errespetatuz garatu beharko dira.



Aurtengo Batzar Orokorra Baigorriin

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu datorren apirilaren 1ean FEUSEren Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Nafarroa Behereko herri zoragarria den Baigorriin ospatuko dugula. Batzarra seigarrena izango da. Ospakizunaz baliatuko gara Elkartearen aurkezpena egiteko Iparraldean.

Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu, hala ere, aurreratzen dizugu Batzarra egin ondoren Baigorriko semea den Anje Arreguy kideak ingurugiroari buruzko hitzaldi interesgarria eskainiko digula.

Oso ongi pasatuko duzula ziurtatzen dizugu. Adi egon, beraz, datorren apirilaren 1ean Baigorriin duzu hitzordua eta.

Bazkide berriak egin


Oso garrantzitsua da. Zenbat eta kide gehiago izan orduan eta ederrago, indartsuago FEUSE. Guztion lana da. Egun Elkartek lan arlo ezberdinetan aritzen garen 200 bat kide ditu. Beraz, ezagutzen duzun lankide hori, dela gazte dela heldu, gureganatu behar duzu. Farmazilari eta euskaltzale izatea, besterik ez diogu eskatzen. Ez zaio damutuko.

XI. Osasun Jardunaldiak "Prebentzioa"

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) Getxon burutuko ditu (Igetxe Hotelean) XI. Osasun Jardunaldiak maiatzaren 4an eta 5ean "Prebentzioa" izenburupean.

Jardunaldietarako izena emateko epea zabalik dago. Harremanetarako Nekane Jaio duzu, Amorebietako Osasun Zentroan, Zelaieta enparantza z/g 48370 Amorebieta (Bizkaia), T. 94 6007227, Fax. 94 6007208, posta elektronikoa:

mailto:njaio@apin.osakidetza.net



Batzar Orokorra apirilaren 1ean izanen da Baigorriin. Egitaraua eta xehetasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu.

Hitzaldiak euskaraz Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialean

Datorren maiatzaren 9an, Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialeko aretoan, arratsaldeko zortzietan Diego Torrea Goñi lankideak "Zientziaren aportazioa ardoaren munduari" izenburua duen hitzaldia emango du. Hizlariak Farmazia-ikasketak Iruñan egin zuen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktore-tesia egin berri du. Hiru gai jorratuko ditu bere hitzaldian; lehena ardoari buruzko ikerketak unibertsitatean, bigarrena ardoa egiteko prozesua, ardo motak, ardoa eta osasuna eta hirugarren gaia dastaketa izango da. Idazpuruan aipatu dugun moduan hitzaldia euskaraz izanen da.

laz euskarazko hitzaldiei hasiera eman genien Nafarroako Farmazilarien El-

kargo Ofizialean. Izan ere, martxoaren 15ean, Pello Iturriak Atropa belladona gai harturik hitzaldia eman zuen. 1999ko azaroaren hasieran Erro ibarrean dagoen Zilbeti inguruan mendizale bat hilik aurkitu zuten. Mendizaleak berak ibilaldietan beti berarekin eramaten zuen zinta magnetofonikoan grabatu zuen kalte egin zioten baia batzuk jan zituela, zorabiatu eta goraka egiten zuela eta mediku baten bila zihoala. Nonbait belladonarenak ziren baiak...

Azaroaren 14an, berriz, Amaia Saez Osteriz lankideak Interneten dauden helbideen garrantziaz, edukieraz, helbide berrien grabaketaz eta artxibaketaz eta helbide berriak aurkitzeko gai izateko prestakuntzaz hitz egin zingun.